

ESKUBALOIA



Wenta poloniarra izan zen Elgorriagako goletzailerik onena. GILLENEA

Elgorriaga Bidasoak lider moduan amaitu du aurreneko itzulia

PELLO AIESTARAN / DONOSTIA

Elgorriaga Bidaso taldeak bere multzoko lidergoa berreskuratu zuen igandean, Teucro Caja Pontevedraren kontra lortutako garaipenaren ondoren (30-20). Juantxo Villarrealen taldea Barcelonarekin berdinduta zegoen sailkapenean, sei jardunaldi jokatu eta hamar punturenkin.

Larunbatean ordea, kataluniarrek porrot egin zuten Arcos Valladoliden aurka, eta ondorioz bigarren tokira jaitsi dira.

Irundarrek modu bikainean hasi dute aurtengo denboraldia, zazpi partidu jokatu eta bakarrik galdu baitute. Gainera, porrot hori egungo Europako eta Ligako txapelaren kontra izan zen eta ozta-ozta. Beraz, gauzak ondo ditu Elgorriagak oraingo. Lehen faseko aurreneko itzulia amaitu

eta lider izatea, bi puntuko abantailarekin, ez da txantxetako gauza.

Bigarren itzulian gauza arrarorik gertatzen ez bada, Elgorriagak sailkapeneko puntan sailka daiteke. Denboraldi honetan garrantzitsua izango da bigarren fasera ondo sailkatuta heltzea —orain lortutako puntuak kontutan hartuko dira—, eta beharakada handirik ez badute, Juantxo Villarrealen gizonak titulurako lehian ondo kokatuta izango dira. Dena den, bigarren itzulia ez da erraza izango eta ikusi egin beharko da gauzak nola joaten diren.

Aurtengo denboraldian argi geratu da orain arte ez dagoela talde errazik, eta edozein momentutan ezusteren bat ere izan daitekeela. Mailarik onena eman beharko dute Elgorriagakoek lidergo horretan segi nahi badute.

Mepamsa Alcoc titulurako play offetan sartzeko gero eta aukera gutxiago ditu

P.A. / DONOSTIA

Mepamsa Alco talde nafarrak bizi duen egoera ez da, ez lasai egoteko modukoa. Liga ondo hasi zuten Zupo Ekisoainen gizonak, baina ondoren porrotak bata bestearen atzetik, eta onenen artean sailkatzeko aukerak gero eta urriagoak. Azken jardunaldian, Teko indartsua izan zuten bisitari Arrosadian, eta berriro ere kale egin zuten iruindarrek, partidu bikaina jokatu eta gauzak hobetzeko bidean daudela argi utzi zuten arren (24-27). Egia esan, ez da batere erraza egungo Europa-

ko txapelaren kontra emaitza ona lortzea, eta beraz emaitza hori normalizat ere jo dezakegu.

Partidu hori galdu ondoren, sailkapeneko seigarren tokian ageri dira Mepamsakoak, eta bost lehenen artean sailkatzea ez dute erraza izango. Dena den, Tekaren kontrako jokoa erakutsiz gero lor dezakete helburua. Bigarren itzulian hamalau puntu izango dira jokoan, eta Zupo Ekisoainek egindako kontuen arabera hamar lortu beharko lituzkete nafarrek titulurako play offetan sartu ahal izateko. Ez da ezinezkoa.

RUGBYA

Donibane Lohizunek goitik behera dominatu zuen Coarraze talde ahula

59-16 irabazita Ligari berriz indarrez heldu diote lapurtarrek

Donibane Lohizunek Ligari berriz indarrez heldu dio eta Coarraze Nay talde ahulari 59-16 irabazi zion. Lehen minututik bukaera arte jaun eta jabe izan ziren lapurtarrak. Bestalde, Serge Blancoren agurrean Hego Afrikak galdu egin zuen Barbariansen kontra. Argentinak bihar Baionan jokatu du, Côte Basqueren kontra.

KOLDO ALDUNTZIN / DONOSTIA

Donibane Lohizunek 59-16 irabazi zion Coarraze talde ahulari. Ez da batere zaila egiten horrelako emaitza izan den neurketan bat aztertzea, lehen minututik azkenera jaun eta jabe izan baitziren lapurtarrak. Beraien jokorekin ardatz nagusiak, aurrera joateko grina eta baloia pasatzean huts handirik ez egitea izan ziren. Lotura eta teknika oneko jokaldiak egin zituzten lohizundarrek. Igandeko hamabostekoan jokalariek guztiak lirakeke aipagarri baina bat nabarmentzekotan, hori hirugarren lerroko Alsuguren izan zen.

Guztira hamar entseiu egin zituzten euskal jokalariek, zati bakoitzean bosna: hiru Toyos hegoaldekoak (10, 47 eta 78. minutuetan), beste hiru Lakarrak (15, 30 eta 40.ean), Texerak, Dabadiak, Irigoienek eta Ibarluzeak bana (38, 51, 53 eta 75.ean). Kanpotarrek, berriz, hiru zigor kolpe, entseiu bat eta trasformaketa. Coarrazekoen hutsak ere primeran aprobetxatu zituzten.

Hortaz, Ligari berriz indarrez heldu diote Donibanekoek. Hori bai, jokalariek askotxo ikusi genuen



Naas Botha hegoafrikarrak puntu asko lortu zituen ostikoen bidez.

lehen taldean. Bigarren taldean horregatik gauzak nahiko gaizki.

Ligako jardunaldi honetan Miarritze eta Baionak jai izan dute. Beste batzuek ordea jokatu dute eta aipatzekotan honako hauek: SBUC 23—8 Nimes, Colomiers 12—9 Perpignan.

BLANCO-REN AGURREAN HEGO AFRIKAK GALDU Birako azken partidua zuten afrikarrek izen handiko frantziar jokalarien kontra. Horien artean R. Jones galestarra. Serge Blancoren agurra zen. Seriotasun handiz ekin zioten bi taldeek 24.000

lekuko zituztelarik. Lehen zatian egin zituzten puntu gehienak 19-10. Lagisketek egin zuen frantziarren entseiu bakarra eta Camberaberok 20 puntu ostikoz. Afrikarrek bi entseiu, Small eta Mullerrek eta gainontzeko puntuak Bothak ostikoz. Emaitza honakoa izan zen: Barbarians 25- Springboksek 20.

Bestalde, Argentinak bihar Baionan jokatu du gaueko 8.30etatik aurrera. Aurrean Côte Basque izango du. Baionaren kontraz gain, beste hiru partidu jokatu dituzte Frantziar, Hego Afrikaren erreleboa hartuz.

Jardunaldi eskasa euskal taldeentzat

KOLDO ALDUNTZIN / DONOSTIA

Espainiako Ligan laugarren jardunaldia jokatu da eta larunbateko Getxoren garaipenak ez du beste euskal taldeen jarraipenik izan, denek egin galdu baitute, Ohorezkoan zein Lehen Mailan.

Bera-Berak Santboianaren kontra jokatu zuen, etxetik kanpo. 74. minuturako 18-0 ziren aurretik kataluniarrek bi entseiu egin zuten Malok eta Taboadak. Lehenengoak Onesimorekin batera taldea berrindartu dute, lehen neurketan ez baitira aritu hamabostekoan. Donostiarrenean berriz, hutsune nabarmena, Gonzalo Amunarriz. Hala ere, ongi erakutsi zuen Bera-Berak badiela jokorik, azkeneko minu-

tuetan horrela frogatu baitzuen bi entseiu egin zuten Lizartzak eta Piedrafitak.

Arquiteturak 46-8 irabazi zion Gernikari. Eraginkortasun osoz aritu ziren madrildarrak zazpi entseiu egin zituztelarik. Gernikarrek, berriz, aukera handiegia eman zuten aurkariari atzealdean. Entseiu bat egin zuten gernikarrek. Orain azken postuan ditugu partidu guztiak galduta.

Lehen Mailari dagokionez, Gaztedi talde gasteiztarrek lortu zuen emaitzarik onena jaitsi berria den Canoeren kontra. 19-16 galdu zuen eta 11. postuan da.

Irunek lehen zatian nahiko ongi eutsi zion Valenciarri. Mele bilduetan indarrez aritu ziren irundar aurrelari gazteak eta joko

irekian berriz, gogotsu baina esperientzia faltak baloi dexente galduarazi zion. Behin baino gehiagotan egon ziren aurkariaren entseiu lerrotik hurbil baina... Aurrean mailaz jaitsi berria den Valencia zuen, hau ere zeharo gaztetua eta berritua. Gezurra dirudien arren, ongi moldatu ziren zelai lokaztuan eta oso ondo aprobetxatu irundarren gabeziak. Agian, 5-41eko emaitza zabalegia litzateke.

DICAVI Ordizia ere esku hutsik etxera Oviedoren aurka 27-6 galdu ondoren. Berritua Oviedok joko gogorra egin zuen epailearen baimen osoz. Jakina da asturiarrek aurrelari beteranoak dituela eta horretaz baliatzen dira. Aitor Araña entrenatzailea oso haserre mintzatu zitzaigun.